

## Bestelako Xedapenak

### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2292

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 24koa, Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburordearena. Horren bidez, merkataritzan kalitatea sustatzeko 2009ko ekitaldirako laguntzen deialdia ematen da argitara.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko uztailearen 24ko Aginduak merkataritzan kalitatea sustatzera bideraturiko laguntzen Programa garatzen du.

Laguntza horiek emateko bideratutako ekonomia-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan ezarritako aurrekontu-partidetatik aterako dira. Aurrekontu horiek abenduaren 29ko 19/2008 Legean ezarritakoaren arabera arautuko dira ekitaldi honetan.

Agindu horren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, bidezkoa da bertan finkaturiko laguntzetarako 2009ko ekitaldiko deialdia egitea eta horretarako eman behar diren arauak ematea.

Adierazitakoa kontuan izanik eta aipatutako Aginduan ezarritako eskumenak betez, honako hau

EBATZI DUT:

#### **1. artikulua.**– Helburua.

Honako hau da Ebazpen honen helburua: merkataritzan kalitatea sustatzeko 2009ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia egitea, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2007ko uztailearen 24ko Aginduan aurreikusitakoaren arabera (agindu horrek merkataritzan kalitatea sustatzera bideratutako laguntzen Programa garatzen du).

Horretarako, 2009. ekitaldian 830.000,00 euro bideratuko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horri dagokionez ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera.

Zenbateko hori aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programa batzuk burutu ondoren agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera, eta betiere laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuaren Ebazpen bidez emango da zirkunstantzia horren berri.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

2292

RESOLUCIÓN de 24 marzo de 2009, del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de ayudas a la promoción de calidad en el comercio, para el ejercicio 2009.

La Orden de 24 de julio de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, desarrolla el Programa de ayudas destinadas a la promoción de la calidad en el comercio.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuya regulación, para el presente ejercicio, se establece en la Ley 19/2008, de 29 de diciembre.

De conformidad a lo establecido en el artículo 7 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de las facultades establecidas en la Orden de referencia,

RESUELVO:

#### **Artículo 1.**– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución la convocatoria, para el ejercicio 2009, de las ayudas para la promoción de la calidad en el comercio, según lo previsto en la Orden de 24 de julio de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el Programa de ayudas destinadas a la promoción de la calidad en el comercio.

Para este fin, para el ejercicio 2009, se destinará un total de 830.000,00 euros, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Este importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De esta circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

**2. artikulua.**– Eskakizunak.

Eskatzaileek, merkataritzan kalitatea sustatzera bideratutako laguntzen programa arautzen duen Aginduan aurreikusitakoari jarraiki, adierazitako Aginduaren 3. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte.

**3. artikulua.**– Eskabideak eta epea.

1.– Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Lurralde Bulegoetan eskuratu ahal izango da eskabide-orria, edo bestela Interneteko honako helbide honetan: [www.eragintza.net](http://www.eragintza.net).

2.– Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Nazioartekotze Zuzendaritzari helarazi beharko dizkiote eskabideak eta gainerako dokumentazio osagarria, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Lurralde Historiko bakoitzean duen Lurralde Bulegoan edo Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako tokietan aurkeztuta.

3.– Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian aurkeztu eta hurrengo egunean hasiko da, eta hartarako esleitutako kreditua agortzen ez bada, 2009ko uztailaren 6an amaituko da.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasita izango ditu ondorioak.

**Bigarrena.**– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 24a.

Merkataritza, Kontsumo eta  
Industria Seguritasuneko sailburuordea,  
RODRIGO GARCIA AZURMENDI.

**Artículo 2.**– Requisitos.

Los solicitantes, según lo previsto en la Orden por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción de la calidad en el comercio, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 3 de la Orden de referencia.

**Artículo 3.**– Solicitudes y plazo.

1.– Un modelo de solicitud será facilitado en las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico y en la dirección de Internet, [www.eragintza.net](http://www.eragintza.net).

2.– Asimismo, deberán dirigir las solicitudes y demás documentación complementaria a la Dirección de Comercio, del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, presentándolas en las correspondientes Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico, o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y, en tanto no se haya agotado el crédito consignado al efecto, finalizará el 6 julio de 2009.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Segunda.**– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de marzo de 2009.

El Viceconsejero de Comercio, Consumo  
y Seguridad Industrial,  
RODRIGO GARCIA AZURMENDI.